

MOZIO ARRUNTA

ANOETA - LOIOLA TARTEAN TRENBIDEA ESTALTZEARI BURUZKOA

Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisas jaunak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua babesean, MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Anoeta-Loiola tartean trenbidea estaltzeari buruzkoa, Udalbatzaren bilkuran eztabaidatzeko.

JUSTIFIKAZIOA

2025eko ekainean, Donostiako Udalbatzak mozio bat onartu zuen gehiengoz. Mozio horren bidez, gobernu-taldeak konpromisoa hartu zuen ETSrekin beharrezkoak ziren kudeaketak egiteko eta Morlas-Anoeta eta Anoeta-Loiola tartean trenbidea estaltzeko erraztasunak ezartzeko.

Kontuan hartuta Loiolako Erriberako aldageltokia eraikitzeko proiektuak (Esteyco ari da hori idazten) ekainaren 20rako prest egon behar duela eta proiektu horretan Udalak trenbide-lubakia partzialki estaltzeko eta Oroimenaren Lorategia handitzeko egindako eskaerak txertatu direla baina ez dela zarataren kontrako konponbiderik txertatu Anoetatik Loiolako Erriberara bitartean bizi diren bizilagunentzat, ez daukagu argi Udalak bizilagun horientzako irtenbide bat sustatuko duenik.

Izan ere, alkatearen adierazpenetan, Udalak Morlans eta Anoeta artean topoaren trenbidea estaltzeko aurreproiektu bat enkargatuko zuela iragarri zuenean, azaldu zuen, Anoeta eta Loiola arteko tarteari dagokionez, etorkizuneko aldageltokia zehaztu arte itzarongo zuela balizko neurriei heldu aurretik.

Horiek horrela direla, hauxe da Alderdi Popularraren udal taldeak aurkezten duen

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Garraio eta Mugikortasun Jasangarriaren Ministerioari, ADIFen bidez, eta Donostiako Udalarekin



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



SAN
SEBASTIÁN

PP Talde Politikoa Grupo Político PP

Ijentea, 1 | Tel. 943481707 | www.donostia.eus

20003 Donostia / San Sebastián

lankidetzan, eskatzen die Anoeta-Loiola tartean ere trenbidea estaltzeko irtenbide bat bila eta ezar dezatela, hots-kutsaduraren arazoa konpontzeko, kutsadura hori jasaten duten herritarrek eskatzen duten moduan.

Donostia, 2026ko apirilaren 7a.

Borja Corominas Fisas

Udaleko Talde Popularraren bozeramailea